

2008-03-04ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zortzigarren urteko martxoaren lauan, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Eugenio Loidi Garmendia jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna eta Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: M. Jesus Otaño Zumeta andreak, Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA AURREKO AKTAK ONARTZEA (08/02/18).

2008ko otsailaren hemezortziko ezohizko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

BIGARREN GAIA ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

-2008-01-02ko 01/08 Dekretua: Irurako ikastolari “kilometroak”-eko bulegoa jartzeko baimena ematea.

-2008-01-02ko 02/08 Dekretua: Irurako ikastolari “kilometroak”-eko arropa biltegia eta denda jartzeko baimena ematea.

-2008-01-03ko 03/08 Dekretua: Euskal Forging, S.A.-ri transformazio zentroa tokiz aldatzeko baimena ematea.

-2008-01-08ko 04/08 Dekretua: Martin Lasa udal langileari hainbat aparteko ordu ordaindu eta beste batzuk jai hartzeko erabakia.

-2008-01-15eko 05/08 Dekretua: azaroari dagozkion fakturak onartzea, 22.427,10,24.- €ko zenbatekoa osatzen dutelarik.

-2008-01-16ko 06/08 Dekretua: Trainelec, SL enpresari jarduera baimena ematea hainbat baldintzarekin.

-2008-01-16ko 06/08 Dekretua: Orkli, SCoop enpresari jarduera baimena ematea hainbat baldintzarekin.

-2008-01-18ko 08/08 Dekretua: Esther Aranzazistroki Pagolak eskatutako trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren itzulketa ez onartzea.

-2008-01-18ko 09/08 Dekretua: abenduari dagozkion fakturak onartzea, 31.817,39.- €ko zenbatekoa osatzen dutelarik.

- 2008-01-22ko 10/08 Dekretua: 12 – E-ri ethez etxeko laguntza zerbitzuaren gehikuntza onartzea.
- 2008-01-30eko 11/08 Dekretua: 12 m² –ko azalera duen lur sail triangeluarraren segregazioa onartzea Gaspar – Enea guneko birpartzelazioa errazteko.
- 2008-02-06ko 12/08 Dekretua: Construcciones Nere Ametsek, 12 etxebizitza eraikitzerakoan jarritako 3.000.- €ko abala itzultzea.
- 2008-02-06ko 13/08 Dekretua: Obretako udal lizentzia hainbat baldintzapean ematea Telefónica de España, S.A.U.ri.
- 2008-02-07ko 14/08 Dekretua: Euskal Forging-ek aurkeztutako xehetasunezko azterketari hasierako onarpena ematea.
- 2008-02-08ko 15/08 Dekretua: Construcciones Lantegui, Slri, Honar pabilioiaren berrantolaketari buruzko xehetasunezko azterketari hasierako onarpena ematea.
- 2008-02-11ko 16/08 Dekretua: Naturgas Energiak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa.
- 2008-02-11ko 17/08 Dekretua: Naturgas Energiak egiten duen Udal jabari publikoaren erabilpen pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatiko likidazioa.
- 2008-02-13ko 18/08 Dekretua: Euskal Forgingi enpresaren eraikin bat eraisteko lanak aurrera eramateko baimena ematea.
- 2008-02-15eko 19/08 Dekretua: Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zergari buruzko 2008ko errolda onartzea.
- 2008-02-20ko 21/08 Dekretua: Aitor Iturbe Saizar jaunari trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaintzetik salbuestea.
- 2008-02-21eko 22/08 Dekretua: Irurako “Zaharren biltokia” elkarteari dirulaguntza ematea.
- 2008-02-25eko 23/08 Dekretua: Espedientea hastea M Teresa Iturbe Egurenen aurka, animaliak izan eta babesteko ordenantza arautzailearen balizko arau haustearengatik.
- 2008-02-28ko 25/08 Dekretua: Gizarte larrialdiko laguntzak onartzea 131E, 113E eta 135Eri.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, UDALERRIA - ENPRESA EGITASMOKO
HITZARMENA SINATZEA.

Irurako Udalak 2007ko otsailaren 14ko Osoko Bilkuran Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana onartu zuen. Bertan, 7. lerro estrategikoko lehen programan, honako ekintza jaso zen: “E.7.1.1. Sailkatutako jarduera eta lanen inguruan kontrol ziurtatu jarduera eta irekitze lizentzia emate, eguneratze eta jarraipenaren bidez”.

Udalerrietan kokatzen diren jardueren kontrola burutu beharra Ernioaldea Udaltalde 21 osatzen duten gainerako herriek ere beharrezkotzat jo dute eta horretarako, Ihobek eta Tolosaldea Garatzenek sustatutako Udalerria – Enpresa proiektua baliabide egokia izan daiteke. Guzti honen xedea, udalerria-enpresa ekintza sortzeaz gain, udalak industriarekiko dituen beharrak eta industriak udalarekiko dituenak ezagutu, eta horiek betetzeko landu beharreko ildo

estrategikoak eta ekintzak definitu eta lehenestea da.

Eusko Jaurlaritza, Tolosaldea Garatzen eta parte hartuko duten udalen artean (Aduna, Anoeta, Asteasu, Belauntza, Ibarra, Irura, Tolosa, Villabona eta Zizurkil) hitzarmen bat sinatzea proposatzen da. Aipatzekoa da hitzarmenaren ondorioz Udalerria – Enpresa egitasmoa aurrera eramateak, udalei ez diela inongo gasturik suposatuko.

Ingurumen udal teknikariaren txostena ikusirik eta Irurako Udala Ernioaldea Udaltalde 21 partaidea dela kontuan hartuz, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- “Udalerria – Enpresa” egitasmoko hitzarmena sinatzea onartzea, eta bide batez, Eusko Jaurlaritza, Tolosaldea Garatzen eta parte hartuko duten udalen artean egingo den hitzarmena sinatzea onartzea.

Bigarrena.- Udalerria – Enpresa egitasmoaren arduradun politiko gisa Udaleko alkatea den Marimi Ugalde Zabala andrea izendatzea eta arduradun tekniko gisa Udaleko arkitekto teknikoa den Iñaki Arregi Garitano jauna, egitasmoak eskatu ala

Hirugarrena.- Irurako Udaleko alkatea, Marimi Ugalde Zabala, hitzarmen hau sinatzeko eta egitasmoa aurrera eramateko sinatu beharreko dokumentuak sinatzeko ahalordetzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

LAUGARREN GAIA

ONARTZEA, BADAGOKIO, KULTURA EREMUKO HAINBAT IKASTAROREN FAKTUREN ORDAINKETARAKO AKORDIOA.

Iruran, kultura sailetik antolatzen diren hainbat ikastaro aurrera eramaten dira astero urte osoan zehar. Ikastaro hauek ikasturtero antolatzen dira eta hauetarako irakasleak kontratatu egiten dira, hauek Udalari hilabetero dagokion faktura helarazten diotelarik.

- Eskulanak
- Antzerkia
- Egur taila
- Euskal dantzak

Jakina denez, Udal honek fakturak ordaintzerakoan, hauek jaso eta 60 egunetara egiten du dagokion ordainketa.

Aipatutako ikastaroetako irakasleek, kultura saileko langileei proposamen bat egin diete: hilean hilekoa ordaintzea, hilabetearen amaieran dagokion faktura aurkeztu ondoren.

Aurrekoa ikusirik, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Aipatutako ikastaroetako irakasleek aurkezten dituzten fakturen ordainketa berehala egitea, ondoko baldintzekin:

- Hilabete bakoitzean ezingo da ikastaro jakin bati dagokion faktura bat baino gehiago aurkeztu.
- Hilabete bakoitzeko faktura bat aurkeztu beharko da.
- Fakturak ezingo dira hilabetea amaitu aurretik aurkeztu.
- Faktura bakoitza ordaintzeko, dagokion alkatearen erabakia beharrezkoa izango da.

Bigarrena.- Hartako erabakiaren berri ikastaroetako irakasleei jakinaraztea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

BOSGARREN GAIA ONARTZEA, BADAGOKIO, 2008KO EKITALDIARI DAGOKION AURREKONTUA.

Udalaren Aurrekontu Orokorren berri eman da. 2008ko jarduera ekonomikorako aurrekontua da; udalaren berezko aurrekontua da soilik. Korporazioko lehendakariak aurkeztu du, udal honetako idazkaritza-kontuhartzaitzak informatuta. Aurrekontuari erantsi zaio Aurrekontua Betearazteko Udal-araua.

Aurrekontu Orokorra aurrekontu eta kontabilitate gaien inguruan indarrean dauden legeen arabera osatu da, hala ezartzen baitu abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen aurrekontuei buruzkoak. Haserako defizit gabe agertu da eta korporazioko udalbatzaren osoko bilkurari aurkeztu zaio onartu, itzuli edo zuzen dezan.

Horren aurrean, aurretik bere edukiaren inguruan azalpenak emanda eta eztabaida izanda, Udalbatzak ondorengo erabaki du aho batez, aipatutako apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 18. artikuluan eta ondorengoetan erabakitakoa jarraituz:

Lehena.- Irurako Udalaren 2008 urteko Aurrekontu Orokorra behin-behinean onartzea. Udalaren berezko aurrekontua da soilik. Gastu eta sarreren egoera atalka laburtuz gero, honela gelditzen da:

Sarrerei dagokionez:

KAPITULUAK

IZENA
EUROAK

1
Zuzeneko zergak
363.000,00

2
Zeharkako zergak
141.257,98

3
Tasak eta bestelako sarrerak
166.500,00

4
Transferentzia arruntak
681.254,79

5
Ondarezko sarrerak
9.000,00

6
Inbertsio errealak inorenganatzea
280.468,25

7
Kapital transferentziak
60.000,00

8
Aktibo finantzarioak
0,00

9
Pasibo finantzarioak
1.000,00

SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA
1.702.481,02

Gastuak, bestalde:

KAPITULUAK
IZENDAPENA
EUROAK

1	Pertsonal-gastuak.	557.614,00
2	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan.	562.680,00
3	Finantza-gastuak.	2.000,00
4	Transferentzia arruntak	185.600,00
6	Inbertsio errealak.	291.087,02
7	Kapital Transferentziak.	94.500,00
8	Aktibo finantzarioak.	1.000,00
9	Pasibo finantzarioak.	8.000,00

GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA

1.702.481,02

Ez da berezko Aurrekontu Orokorra deskribatu, honen errepikatze hutsa delako.

Honela, 2008ko jarduera ekonomikorako Aurrekontua Betearazteko Udalaraua onartu da.

Bigarrena.- Espedientea jendaurreko informaziorako jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz hamabost egun eraginkorrez, erreklamazioak egin ahal izateko. Aurrekontua erabat onartutzat joko du udalak aipatutako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Behin betiko onartutako aurrekontu orokorra Gipuzkoako Lurralde

Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da atalka laburtua.

Behin betiko onartutako aurrekontuaren kopia bat bidaliko du udalak Gipuzkoako Foru Aldundira.

Hirugarrena.- Aurrekontua dagokion ekitaldian jarriko da indarrean, aurreko atalean aurrikusitako eran argitaratua izan ondoren.

Gainera, aurrekontuaren kopia bat eta bere aldaketak jendearen eskura egongo dira informazioa izan dezaten, behin betiko onartzen den unetik jarduera bukatu arte.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik tartearri.

SEIGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, 2008KO PLANTILA ORGANIKOA ETA
LANPOSTU ZERRENDA.

Langileen plantila organikoa eta 2008ko jarduera ekonomikorako lanpostuen zerrendaren berri eman dute. Aurreko urtealdiko berbera da, aldaketa bakarrarekin: kultura laguntzailearen jarduna %50etik %100era igarotzea proposatzen da lanpostu horrek sortu zenetik izan duen garapena eta garrantzia eten gabe haziz joan delako, herriaren biztanle kopuruarekin batera. Era berean, lanpostu hau jabetzan betetzeko beharra argi ikusten da. Une hori igaro artean, gaur egun lanpostua betetzen duena proposatzen da, %100eko jardunaldian eta bitarteko langile bezala.

Udalbatzak onartzea erabaki du aho batez.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

ZAZPIGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, GIPUZKOAKO URAK
MANKOMUNITATEARI 2008AN EGIN BEHARREKO EKARPENAREN
LEHENGO ZATIAREN ORDAINKETA.

Gipuzkoako Urak Kontsurtzioak, azpiegituren finantziarioari dagokion faktura igorri du. Faktura hau, 2008. urtearen lehenengo zatiari dagokio eta Gipuzkoako Urak Kontsurtzioaren saneamendu planari egokitzen zaio. Bestalde, uren kalitatea zaindu eta neurtzeari dagokionez, urte osoari dagokion faktura aurkeztu du.

Lehenengoko fakturaren zenbatekoa 14.474,76.- €koa da BEZ barne eta 2008ko maiatzaren 25a baino lehen egin behar da ordainketa. Bigarrenengo fakturaren zenbatekoa 1.850,47.- €koa da BEZ barne eta 2008ko irailaren 30a baino lehen egin behar da ordainketa.

Udalbatzak aho batez onartu du, Gipuzkoako Urak kontsoltzioaren barruan, Irurako Udalari aipatutako kontzeptuengatik Mankomunitateari egin beharreko ekarpenaren lehengo zatiaren ordainketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

ZORTZIGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, LOATZO MUSIKA ESKOLA
MANKOMUNITATEARI 2008AN EGIN BEHARREKO EKARPENAREN
LEHENGO ZATIAREN ORDAINKETA.

Irurako Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko uztailaren 4an, Irura Udalerria Loatzo Musika Eskola Mankomunitatean bazkide gisa sartzeko proposamena onartu egin zuen.

Loatzo Udalerrien Mankomunitateko batzorde eragileak onartutako aurrekontuaren arabera, Irurako Udalari dagokion ekarpenaren zenbatekoa 42.909,43.- €koa da. Bi epetan egingo da, lehenbizi %50a ordainduko delarik, hau da, 21.454,71.- €, eta martxoaren 15aren aurretik.

Udalbatzak aho batez onartu du, Loatzo Udalerrien Mankomunitateko batzorde eragileak onartutako aurrekontu orokorraren arabera Irurako Udalak egin beharreko ekarpenaren lehengo zatiaren ordainketa egitea.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

BEDERATZIGARREN GAIA
GALDERAK ETA ESKAERAK

9.1. IRURAKO IKASTOLAK EGIN DUEN ESKAERA

2008ko martxoaren 4ko sarrera data eta 417 zenbakiarekin, Irurako Ikastolak ondoko eskaera egin du: konturatu dira proiektatutako jolas kantxa egiteko lur sail handiagoaren beharra izango dute. Udal honi zera proposatzen diote, aldameneko zoru publiko lur sail horretatik beharrezkoa duten lur eremua ere lagatzea jolas kantxa egin ahal izateko.

Udalbatzak aho batez onartu du, gaiaren inguruko zirrikitu guztiak ondo aztertzeko, udala hirigintza gaietan aholkatzen duen taldeari iritzia eskatzea, erabakia hurrengo batetarako utziz.

Akordio hau erabatekoa da administrazioko bidean. Beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 21:50etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.